



**HAL**  
open science

# Euskararen corpora: Euskaltzaindia eta Ipar Euskal Herria

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Euskararen corpora: Euskaltzaindia eta Ipar Euskal Herria. Jean-Baptiste Coyos. Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa, Jagon bilduma 17, Euskaltzaindia - Académie de la langue basque, pp.31-42, 2017. artxibo-01781176

**HAL Id: artxibo-01781176**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-01781176>**

Submitted on 29 Apr 2018

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# Euskararen corpora: Euskaltzaindia eta Ipar Euskal Herria

Jean-Baptiste Battistu Coyos  
Euskaltzaindiaren Jagon sailburua

*Ezin-bestekoa, hil edo bizikoa,  
dela uste dugu euskera batasun bidean jartzea*  
Koldo Mitxelena

## 1. Hizkuntzaren estatusa eta corpora<sup>1</sup>

Soziolinguistek bi alor zabal ezberdintzen dituzte hizkuntza baten aldeko hizkuntza politika indarrean jartzen denean, deitzen duten *hizkuntzaren plangintzan*. Alde batetik *estatus-plangintza*, bestetik *corpus-plangintza*. Heinz Kloss soziolinguistak ditu bi kontzeptu horiek sortu, *status planning* (estatus-plangintza) eta *corpus planning* (corpus-plangintza), biak loturik *language planning* osatzen dutelarik (1969, *Research possibilities on group bilingualism: a report*).

### 1.1. Hizkuntzaren estatusa

Jardunaldian Euskal Konfederazioko kideak euskararen transmisioaz Ipar Euskal Herrian, erabileraz eta erabileraren aldeko motibazioaz mintzatu dira, Txepetxen triptikoa beren gain eginez<sup>2</sup>. Hiru ezaugarri horiei esker, besteak beste, hizkuntza baten bizindarra neurtzen da. Hizkuntza bat gero eta transmitituagoa baldin bada, gero eta erabiliagoa hizkuntza-komunitatean, haren aldeko motibazioa gero eta handiagoa gizartean, orduan hizkuntza hori gero eta indartsuagoa izanen da.

---

<sup>1</sup> Artikulu hau XXI. Jagon jardunaldian eman zen mintzaldiaren bertsio emendatua da, alderdi teorikoa lantzen duena erreferentziak emanez. Euskararen corpora Euskaltzaindiaren eginkizunetan dago, baina eginak eta beharrak hemen Ipar Euskal Herriatik ikusirik izanen dira.

<sup>2</sup> Sánchez Carrión „Txepetx“en « motibazioa / ezagutza / erabilera » triptiko horrek („*Un idioma se aprende por tres factores básicos que son la motivación (Eusk. motibapena), la percepción (Eusk. ezagutza), y el ejercicio o uso (Eusk. erabilpena)*“, in *Un futuro para nuestro pasado*: 35) arrakasta handia lortu zuen Euskal Herrian eta oraino ere erabilia da hizkuntza-plangintzan (Euskararen Erakunde Publikoak adibidez bere hizkuntza politika proiektuan), ekintza ezberdin batzutan. Halere jakin behar da “Txepetx” norbanakoaren hizkuntza jabetzeari eta hizkuntza ikasteari aplikatzen zitzaizela, nahiz ama-hizkuntzarenari (lehen hizkuntza), nahiz bigarren hizkuntzarenari. Txepetxek triptiko hori Commins eta Faginen 1954eko *Principles of Educational Psychology*-tik etortzen zela azaltzen zuen (1987: 109). Triptiko horren mugak eztabaidatzeko lirateke hizkuntza politikari eta hizkuntza plangintzari aplikatzen zaienean.

Ezaugarri horiek hizkuntzaren estatusaren alorrean sartzen dira, hizkuntzak gizartean duen lekuan. Legezko kuadroak eta hizkuntza normalizatzeko egiten eta egiten ez diren ekintzek denek hizkuntzaren estatusa eragiten dute<sup>3</sup>. Ekintza horiek hizkuntzak betetzen dituen gizarte-esparruak eta funtzioak gizartean eragiten dituzte, hots hizkuntzaren estatusa eragiten. Beraz, euskararen estatusa Ipar Euskal Herrian neurtuko dugu, alde batetik eskualdetako hizkuntzek Frantzia duten legezko kuadroaren arabera eta, bestetik, euskarak Iparraldeko gizartean betetzen dituen gizarte-esparruen eta funtzioen bidez.

Estatus-plangintzak alor horietan denetan eragiten saiatzen du, hizkuntza minorizatuak erabilera eremuak eta funtzio denak eskura ditzan. Hau da deitzen den normalizazioa, gure kasuan euskarak hizkuntza baten erabilera eremuak denak eta bete ditzakeen funtzio denak eskura edo berreskura ditzan.

## 1.2. Hizkuntzaren corpora

Beste alorra, euskararen corpora, da hemen interesatzen zaiguna. Bi adiera ditu *corpus* hitzak. Bat da, euskararen kasuan, euskal testuek denek osatzen duten funtsa. Alor honetan, Euskaltzaindiak tresna bat baino gehiago garatzen du: XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa, 4.658.036 testu-hitzez osatua dena, Lexikoaren Behatokiaren Corpora, hainbat eremu jorratzen dituen, batez ere hedabideak, eta *Orotariko Euskal Hiztegia*, garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea biltzen duena.

Baina corpus hitzak beste adiera badauka, hemen erabiliko duguna: corpora hizkuntza beraren forma, euskara beraren forma da ere. Beraz corpus-plangintzak hizkuntzaren forma eragiten du. Testuinguru sozial, kultural, politiko eta historiko berezi batean, corpus-plangintzak hizkuntzaren forma aldatzen du finkatu diren helburuen arabera. Corpus-planifikatzaileak hizkuntzaren egitura moldatzen du hizkuntza moldatuak funtzio berri zenbait bete ditzan: ortografia finkatzen da eskolan irakasteko, hizkuntza estandarizatzen da administrazioetan erabilteko, hiztunen behar berrietara egokitzen da informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT) erabilteko, etab.<sup>4</sup>

### 1.2.1. Corpus-plangintza status-plangintzaren mendekoa da: euskara batuaren kasua

Corpus-plangintza status-plangintzaren mendekoa da era batez, hautu politikoaren mendekoa da, hizkuntza-ideologiaren eta irudikapenen mendekoa (Fishman, 2006: X. or.). Euskara batuaren sorkuntzarekin adibidez, corpusaren baitan eragin da, euskara idatzi komun eta bateratu bat eskuratzeko.

---

<sup>3</sup> Hau da hizkuntza-normalizazioaren definizio bat: „*Minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua*“ (UZEI, Soziolinguistika Klusterra, HPS, *Soziolinguistika Hiztegia*: 20. or.).

<sup>4</sup> Irakurleak Fishman-en *DO NOT Leave Your Language Alone...* liburua irakur lezake corpus-plangintzari buruzko teoria, kontzeptuak, denboran eta munduan zehar corpus-plangintza esperientziak ezagutzeko.

Baina euskara batu bat sortzeko motibazioek euskararen estatusarekin ikusteko bazuten. Euskaltzaindia, bere 50. urte betetzea ospatzeko, 1968ko urriaren 3an, 4an eta 5ean bildu zen Arantzazun (Gipuzkoa) eta orduan euskara batua behar zela sortu erabaki zen. Koldo Mitxelena euskaltzainak “*Ezin-bestekoa, hil edo bizikoa, dela uste dugu euskera batasun bidean jartzea... Nahi eta behar dugun batasun hori, lehen urratsean behintzat, euskera idatziarena, izkribuzkoarena, da... irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori...*” idatzi zuen (*Euskera*, XIII: 203). Beraz Mitxelenaren hitzetan helburua euskara salbatzea zen eta euskara idatzi forma bat sortzea irakaskuntzan erabiltzeko<sup>5</sup>. Garai hartan, “*gure historia osoan lehen aldiz, eskola euskaldunak sortu ziren, ikastolak, eta jende helduak euskaraz ikasteko gau eskolak antolatu ziren*” (Zuazo, 2005: 150). Testuinguru soziala, alor horretan, euskara batuaren aldekoa zen. Halaber, Manuel Lekuonak biltzarraren idekitzeko “Euskeraren batasuna” aitzin-solasean bi publiko ikusten zituen euskara batuarendako: aldizkariak (batzuk aipatzen zituen *Zeruko argia, Anaitasuna, Jakin...*), ikastolak (“*Ikastoletako Liburuetan eta jolasketetan*”, *Euskera*, XIII: 139).

Bistan da beste helburu batzuk bazituen euskara batuaren sortzeak, aipatuena behar bada euskalkidun ezberdinen arteko ezin ulermena gainditzea<sup>6</sup>.

### 1.2.2. Corpus-plangintzaren alor nagusiak: “grafizazioa”, “estandarizazioa” eta “modernizazioa”

Charles Fergusonen arabera (Cooper, 1989: 125), hizkuntzak konpara daitezke “grafizazioa”-ren, “estandarizazioa”-ren eta “modernizazioa”-ren arabera.

**Grafizazioa** da hizkuntza bati idazteko ortografia ematea<sup>7</sup>. Grafizazioak lexikalizazioaren eta gramatikalizazioaren batera hizkuntzaren kodifikazioa (kodetzea) osaten du. Hots, hizkuntzaren kodikazioarekin hizkuntza idazteko gai da, oinarrizko lexikoa finkatua da eta bai ere gramatika arau nagusiak. Hizkuntza kodifikatua literaturan, testu administratiboetan, irakaskuntzan, etabarretan erabilteko gai da. Baina hizkuntzaren norma grafiko hori finkatua ondoan, gizarteratze lana egin behar da, gizarte osoan, hizkuntza-komunitatean, eragin behar da norma berria onartua izan dadin. Norma hori preskriba daiteke administrazioan, irakaskuntzan, komunikabideetan... Beraz preskribatua den norma onartua eta erabilia izan behar da, eta gero egoten da beste norma batek haren lekua hartuko duen arte (Cooper, 1989: 144). Halere, indarrean den norma alda daiteke ere emeki-emeki beharren arabera.

---

<sup>5</sup> XVI. eta XVII. mendeetan jadanik Leizarragak (*Jesus Christ gure Jaunaren Testamentu Berria*, 1571) eta Axularrek (*Gero*, 1643) euskararen ezberdintasun handiarengatik idazteko arazoa azpimarratzen zuten.

<sup>6</sup> Bere *Euskara batua Ezina ekinez egina* saiakeran, Koldo Zuazok zerrendatzen ditu zein diren bere ustez euskara batuaren “onura” garrantzitsuenak (2005: 199-201).

<sup>7</sup> Hau da grafizazioaren definizio bat: „*Hizkuntzaren ortografia-arauak finkatzea. Kodetzearen hiru ataletako bat da.*“ (UZEI, Soziolinguistika Klusterra, HPS, *Soziolinguistika Hiztegia*: 19. or.).

**Estandarizazioa** da hizkuntza-norma bakar bat izatea, gizartean zabalki onartua dena, egokia eta aldaketa gutirekin erabilgarria helburu oroetan (Cooper, 1989: 134)<sup>8</sup>. Era batez kodifikazioa estandarizazioaren zati bat da.

**Modernizazioa** da Fergusonen hizkuntza-garapenaren hirugarren irizpidea (Cooper, 1989: 149). Eraldaketa prozesu baten bidez, hizkuntza erabilteko aldatzen da gizartearen bilakaerarekin batera, komunikazio-tresna egokia bilaka dadin diskurtso alor eta forma modernoetan erabilteko. Bistan da prozesu hori etengabekoa da, hizkuntza egokia atxikitzeke, gizartearen aldaketaren batera.

Datorren atalean so egingen dugu laburzki euskara zein neurrian idazteko gai den, zein neurrian estandarizatua eta modernizatua den.

## 2. Euskararen corpusa. Eginik izan dena: *euskara batua*

Beraz euskararen corpusa euskara beraren forma da eta forma horretan eragiten du hizkuntza politikaren adarra den corpus-plangintzak. Euskarak ahozko eta idatzizko forma ezberdin anitz baditu, erregistro ezberdinak, hiztun bakoitzaren hizkera, tokiko hizkerak, euskalkiak eta duela guti sortu den euskara batua bere aniztasunean.

### 2.1. Euskara batuaren etengabeko garapena

Euskara batuaren sortzearekin idatzizko kodea estandarizatu izan da, bereziki Euskaltzaindiari esker. Urrats anitz egin dira denbora gutitan<sup>9</sup>. Euskaltzaindiak euskararen corpusa landu du eta lantzen du. Euskararen kodifikatzaile nagusia izan da eta da, eta ondorioz lehen preskribatzailea ere. Euskaltzaindiaren arauemaite lana behar-beharrezkoa da, euskararen normalizaziorako, euskara modernizatzeko. Hastapenetik 2017ko martxoaren 5ko data arte, 180 arau berretsi ditu Euskaltzaindiak (ikus [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)). Alor ezberdinetan sailkatzen dira: ortografia-arauak, hitzen deklinabidea, aditz-formak, izen bereziak (euskal onomastika eta exonomastika...), etab. Lehen araua aipatu dugun Mitxelenaren 1968ko Ortografia testua izan da, arau anitz biltzen zituena. Azken arauak, adibide gisa, horiek dira: 178.a Kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta jatorri-adjektiboak sortzeko irizpideak, 179.a Bizantziar Inperioko pertsona-izenak eta 180.a Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Germaniar jatorriko pertsona-izenak.

Zuazok aspaldinak errepikatzen dena oroitarazten du: “*Hil edo bizikoa da hizkuntza etengabe berritzea*” (2005: 230). Bai eta desafioa Euskaltzaindiarentzat da euskal hizkuntza-komunitatearen beharrei erantzutea. Beraz, lehenik, behar horiek detektatu behar dira. Lexiko

---

<sup>8</sup> Hau da estandarizazioaren definizio bat: „*Hizkuntza baten barietate estandarra zehazteko, ezartzeko eta lantzeko helburua duen prozesu linguistiko eta soziala. Lau fase ditu: hautatzea, kodetzea, implementazioa eta elaborazioa.*“ (UZEI, Soziolinguistika Klusterra, HPS, *Soziolinguistika Hiztegia*: 19. or.).

<sup>9</sup> Euskara batuaren historia osoa ezagutzeko, hasikinak, gorabeherak, garapena, ikus adibidez Koldo Zuazoren *Euskara batua Ezina* ekinez egina saiakera.

juridiko-parlamentarioa hartzen baldin badugu, adibidez, 2017an *Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa* argitaratu du akademiak, 1.400 hitzetik gorakoa, “*guztion adostasunarekin, guztiontzat aplikagarri eta erabilgarri den euskarazko formulazio bateratua*” eskainiz (2017: 8). Hori Eusko Legebiltzarrak, Nafarroako Parlamentuak, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako batzar nagusiek galdaturik, erabilteko helburuarekin.

Euskararen kode idatzi horren ezaugarri garrantzitsu bat azpimarratu nahi nuke: erabilteko erraztasuna. Erran dezakegu kode horren grafiaren, euskararen ortografiaren ikastea, irakurtzea, erabiltzea errazak direla. Hori da kode horren ezaugarri baikorra. Euskararen ortografia ikastea erraza da. Frantsesarenari konparatzen baldin badiogu, hori argi-argia da.

Baina, bitartekaririk gabe gizartean gizartean, euskararen erabiltzaileengan, lan hori alferrik litzateke. Corpusa gero eta landuagoa da eta hizkuntzaren erabilerara eraman behar da. Arauemaite lan hori gizarteratu behar da, euskararen erabiltzaileengana joan dadin (2.2. ikus beherago). Lehen lerroan irakasleak, idazleak, kazetariak, itzultzaileak, administrazioak baditugu. Horiek dira euskararen hedatzaileak eta ondorioz, era batez ere, preskribatzaileak.

Euskara batuaren gizarteratzearengatik, Oihartzabalek bi euskara mota bereizten ditu: *euskara batua* “(le basque unifié)” eta *euskara komuna* “(le basque commun)” (Oyharçabal, 2002: 136-137). *Euskara batua* da Euskaltzaindiak bere gomendio eta arauetan proposatzen duen euskararen forma. Aldiz, *euskara komuna* da euskara batutik, gomendio akademikoetarik baino urrunago joaten den argitaratzaileek, prentsak, irakasleek erabilten duten euskara. Ondoko lerroaldean erakutsiko dugu pixka bat nola euskara batua, lehenik idatzia zena bakarrik, gizarteratu den ahozko eta ama-hizkuntza bilakatuz.

## **2.2. Euskara batuaren bilakaera eta gizarteratzea (“vernakularizazioa”<sup>10</sup>)**

Euskara batua erabiltzaile ezberdinek erabilten baitzuten, ahozko testuinguruetan ere, euskara idatzitik ahozko euskara bilakatu da, erabiltzaileen beharren arabera. Denborarekin, euskara batua moldatu da hezkuntzan, literaturan, komunikabideetan, teknologia berrietan, administrazioetan sar dadin eta sartu da. Euskararen kasuan ere, Cooper-en behaketa gauzatu da: estandarra usuenik idazteko onartua eta gero, irakaskuntza formalaren eta tokiz gaindiko komunikazioaren garapenarekin, lurralde ezberdinetako jendeak estandarra erabilten du, testuinguru komunikatiboek tokiz gaindiko baloreak azpimarratzen dituzten diskurtso ezberdinetan (Cooper, 1989: 143). Erabilerarekin euskara batua molde ezberdinetan gauzatu da. Hedatzaile bakoitzak bere idatzizko edo ahozko ekoizpenean euskara batuaren forma bat baliatzen du preskribatzailea bilakatuz.

---

<sup>10</sup> Neologismo (itsusi) hori asmatu dut euskara batuak ezagutzen duen gizarteratze eta ahoskatze prozesua izendatzeko. Prozesu horretan, euskara batuarendako bilakaera garrantzitsuetarik bat da ama-hizkuntza bilakatzea.

Eragile batzuk izan dira euskara batua ezberdintzeko: ahozko edo idatzizko erabileraren testuinguru ezberdinak (aldizkari zientifiko batean ez da telebistako joko batean bezala gauzatuko), lurraldea, tokiko euskalkia eta estatu-hizkuntza menderatzailea (erdara), erabiltzaileak berak. Oihartzabalen “euskara batua”-ren eta “euskara komuna”-ren arteko ezberdintasuna onar dezakegu (2.1. ikus), baina “euskara komuna” ez da uniforme. Beste irizpide batzuk behar ditugu. Bilboko euskara batua ez da Ipar Euskal Herrikoa. Alde batetik bizkaieraren eta gaztelaniaren eraginak baditugu, bestetik Iparraldeko euskalkien eta frantsesarenak. Ildo honetan, Zuazok “tokiko batuak”, “batu jaso eta lagunarteko batua” ezberdintzen zituen (2005: 237-241). Hots denborarekin, erabilera ezberdinekin, erabilera funtzio eta testuinguru ezberdinekin, euskara batua herri-hizkuntza bilakatzen ari da, bereziki euskalkirik gabeko lurraldeetan. Eta gazteek, gero eta gehiago, euskara batua ama-hizkuntza gisa dute (edo lehen-hizkuntza gisa, hobe).

Beraz, euskara batuaren beste ezaugarri garrantzitsu hori azpimarratu nahi nuke: lehen hizkuntza bilakatu da euskaldun zenbaitentzat, orain haur eta gazte zenbaiten ama-hizkuntza da. Beste kopuru handi batentzat, euskara batua bigarren hizkuntza da, ikastetxean ikasia eta ikasketen oroen zehar irakaskuntza-hizkuntza (izan) dena. Gero eta gehiago dira euskara batua ahozko eta egunerozko hizkuntza gisa dutenak, hiri handietan edo euskara galdu duten lurraldeetan. Bilakaera ezberdin horiek euskara batuaren arraskataren frogak dira. Neurri handi batean Euskal Herriko gizarteak eta bereziki euskal hizkuntza-komunitateak euskara batua onartu dute, molde eta forma ezberdintan, nahiz Hego Euskal Herrian, nahiz Ipar Euskal Herrian. Lana bukatua ez bada ere, euskara batua gai da, oro har, oraingo bizi modernoaren hizkuntza izateko eta euskal hizkuntza-komunitatearen zati handi batek horren berri badauka. Dena den, euskara batua gizarteratzeko, corpusari buruzko aholku eta kontsulta zerbitzuetan zerbitzu-eskaintza hobetu behar da teknologia berriei esker. Hau da Euskaltzaindiaren lehentasunetarik bat.

Ipar Euskal Herritik begira, galdera batzuk badira. Zertan dira euskararen formak Ipar Euskal Herrian eta zer nahi dugu, zoin erabili? Zoin da euskara batuaren lekua? Zoin euskara batua Iparraldean? Iparraldeko euskara batu propioa badugua? Tokiko hizkeren, euskalkien eta euskara batuaren elkarbizitza nola kudeatu? Etab.

### **2.3. Euskara batua kohesio-eragilea**

Galdera horiei erantzun baino lehen, euskara batuaren beste ezaugarri bat biziki garrantzitsua nahi nuke azpimarratu. Usu, euskara batua euskalkidunen ez elgar ulertzea gainditzeko tresna dela erraiten da eta egia da.

Ildo honetan nahi nuke azpimarratu ere nola euskara batua kohesio eragilea den Ipar eta Hego Euskal Herrien artean, euskaldunen denen artean. Euskal hizkuntza-komunitatea egituratzen du, Euskal Herria eta euskal hizkuntza-komunitatea beren osotasunean kontuan hartzen baititu. Bistan da euskara euskalkien bidez gauzatzen da toki zombaitetan, ez denetan, baina ere euskara batuari esker gero eta gehiago, hiri handietan bereziki. Hori da gure kohesio-

eragile nagusia, euskara batua da euskaldunen arteko bizitzeko tresna garrantzitsuena, euskal hizkuntza-komunitatearena.

Adibidez, orain berean, ez dut idazten ikasi dudan zubereraz baina euskara batu baten bidez, nire euskara batuaren bidez erranen nuke.

Euskara batuak, iragana, euskararen historia luzea, eta geroa, hizkuntza egokia gizarte modernoan bizitzeko, lotuz, euskal hizkuntza-komunitatea erreberitzen eta indartzen du. Euskaldunentzat hori biziki garrantzitsua da. Beren hizkuntzaz harrotasuna ematen die, hizkuntza-komunitate bizi bateko kideak senditzen baitira.

### 3. Euskaltzaindiaren eginak eta eginkizunak Ipar Euskal Herrian

Zoin dira beraz Euskaltzaindiaren eginkizunak? Euskaltzaindia da Euskal Herri osoko erakundea, euskararen lurralde guztiak aintzat hartzen dituena. Bere egitekoa izanen da lehen izan zen bezala, hizkuntzaren batasunerako arauak, irizpenak eta gomendioak ematea, bai eta euskara zaintzea ere. Hots euskararen corpusa lantzea, hizkuntzaren kalitatea zaintzea eta euskara bera begiratzea.

Eta Ipar Euskal Herriaz zer erran? Euskaltzaindiak orain arte euskararen eremu osoan eramaten duen lana nahi luke jarraiki baina, Ipar Euskal Herriari dagokionez, lan hori molde ikusgarriago batez egin behar du, lan hori indartuz, jauzi kuantitatibo eta kualitatiboak eginez. Zer egin duen eta zer egin dezakeen ikus dezagun beraz<sup>11</sup>. Corpusaren alderdi ezberdinak aztertuko ditugu banan-banan, adibideak emanez, exhaustiboa izan gabe.

Lehenik **hiztegingintzan**. Euskaltzaindiak argitaratzen dituen hiztegieta Iparraldeko euskalkiak kontuan hartuak dira. Aurten publikatu duen *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* bigarren edizioan (2017), 2.716 hitz badira *Ipar*. laburdurarekin (Iparraldea), 56 *Lap*. laburdurarekin (Lapurtera), 46 *BNaf*. laburdurarekin (Behe-nafarrera) eta 37 *Zub*. laburdurarekin (Zuberera). Beraz 37.884 sarreratarik (gehi 6.944 azpisarrera), 2.855 iparraldekoak dira. Erran gabe doa beste hitz anitz komunak direla Euskal Herri osoan. Euskaltzaindiak publikatu duen *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren 16 tomoetan (1987-2005), euskaraz idatzi diren liburu gehienen lexikoa jaso eta antolatu da, garai eta euskalki ezberdinetakoak<sup>12</sup>. Bistan da Iparraldeko literatura osoa hiztegi historiko horretan sartu da.

Hiztegingintzaren alor honetan, Ipar Euskal Herrian urrats bat egin da duela guti, Euskararen Erakunde Publikoaren finantzaketarekin, baina Euskaltzaindiaren parte-hartzerik gabe. *Nola Erran* frantses-euskara hiztegi elektronikoa on-line ezarri da (www.nolaerran.org, 2013an bururatua). Egileen arabera, euskara batua erabilten da baina “*Ipar Euskal Herriko hizkuntza ingurumenari egokitua*”. Ildo honetan, hiztegi horrek beherago aipatuko dugun Iparraldeko

---

<sup>11</sup> Liburu honetan Xarles Videgaine idatzi duen Euskaltzaindiak Euskal Herriko Garapen Kontseiluari artikulua erakusten du Ipar Euskal Herrian Euskaltzaindiaren lan ildoak zein izan daitezkeen. Era batez, artikulua hau osatzen du.

<sup>12</sup> 2017an hiztegi horren bertsio elektronikoa publikatu du Euskaltzaindiak: “*Internet bidezko zabalkunderako bi bertsio prestatu dira: bata, PDF formatuan, testu jarraitu moduan ordenagailura jaits daitekeena; eta bestea, HTML formatuan, sarrera nagusiak bilatzeko aukera eskaintzen duena*” (www.euskaltzaindia.eus).



batuaren estandarizazioan parte-hartuko du, Ikas pedagogia zerbitzuak euskal eskola irakaskuntzarendako argitaratzen dituen liburuek eta dokumentuek bezala<sup>13</sup>.

**Gramatiketan** ere, euskara batua kodifikatzearen lanean, euskararen arau nagusiak aintzat hartzen ditu Euskaltzaindiak, baina euskalkiek dituzten ezaugarriak baztertu gabe. Har dezagun 5. araua adibide gisa, *Ene/Nire, Niri*, 1994ko urriaren 28an onartua: *ni* izenordainaren genitiboa *niri* dela erabakitzen da, baina bai ere Iparraldean erabilia den *ene* forma. Beste adibide bat: 2010ean Jüje Etxebarneren *Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz* liburua argitaratu du Euskaltzaindiak, zubereraren arau gramatikalak zehazten dituen. Halere, adibidez, nafar-lapurteraren gramatika modernorik ez dugu mementoko.

Gramatikaren alorrean Euskaltzaindiak egitasmo berezi bat badu Ipar Euskal Herriarendako, *Euskara eskuz esku* proiektua. Ipar Euskal Herriko hiztunei hizkuntza-aniztasuna kontuan hartuko lukeen euskara batuaren hedatzeko tresna linguistiko berria ematea du helburu. Gaurkotu den euskarri elektronikoa erabilgarria sortuz, xedea euskaldunen galderei erantzutea litzateke. Euskarri horrek Euskaltzaindiak ematen dituen gomendioak eta arauak proposatuko lituzke ordena alfabetikoan diren artikulua labur eta argiren bidez, Ipar Euskal Herriko hizkuntza-aniztasunari dagozkionak azpimarratuz. Hizkuntza idatziari eta ahozkoari lotuak diren eremu guztiak kontuan hartuko lituzke: morfosintaxia, fonetika eta fonologia, hiztegiak, onomastika, dialektologia, literatura, euskara batua eta euskalkiak, euskara batua eta euskararen estatusa Iparraldean.

**Dialektologia** Bistan da, Euskaltzaindiak argitaratzen dituen Atlas linguistikoan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas* (EHHA), Iparraldeko euskalkiek beren leku osoa badute. EHHAko galdesortak 2.857 galdera baditu. Hautatu izan ziren 145 inkesta lekuetarik, 45 iparraldekoak ziren: 15 Lapurdin, 18 Nafarroa-Beherean eta 12 Zuberoan. Galdera bakoitzari erantzunak mapa batean bilduak dira eta, bistan da, mapa denetan Iparraldeko euskalkiak edo hizkerak agertzen dira erantzun horien bidez.

Aurreikusi ziren 12 tomoetarik zazpi argitaratuak dira 2017a arte (ikus *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, I., II., III., IV., V., VI., VII. tomoak). Atlas linguistiko hori obratzeko 4.000 oren baino gehiago grabatu ditu Euskaltzaindiak eta bestalde ahozko bilduma franko dauka artxibaturik.

Iparraldeko **literatura** ere zaintzen du Euskaltzaindiak, liburuak argitaratuz edo berrargitaratuz edizio berezitan. Ez ditugu hemen zerrendatuko. Luzeegi litzateke. 2015ean argitaratu duen *Euskal Literaturaren Antologia*-ren lehen tomoan, *Erdi Arotik Errenazimentura*, Iparraldeko idazleek leku handia hartzen dute Bernat Etxepare eta Joanes Leizarragarekin. Literaturaren arloan, lan perspektibak zabalak dira, nahiz ahozko literaturan, nahiz literatura idatzian. Mota askotako ikerketa beharra bada.

---

<sup>13</sup> IKAS pedagogia zerbitzua Frantziako 1901eko legepeko elkarte da. Euskararen Erakunde Publikoak eta Hezkuntza nazionalak izenpetu duten hitzarmenaren arabera, euskarazko ikasmaterialezko zerbitzu publikoa da.

Ahozko alor zabal horretan, Ipar Euskal Herriarendako, Euskaltzaindiak egitasmo berezi bat badu **oralitateaz**. Oralitatearen tokia are handiago izan behar litzateke, kode idatzia oso garatua izan ez zen gizarteetan. Euskal Herriko kasuan, XX. mendeko erdia arte euskarazko ekoizpen idatzia aski ahula izan zen. Eta orain ere, euskara idatzia zinez hedatu baldin bada ere gizarteko eremu eta genero anitzetan, oralitatearen ikertzeko premia badago. Idatziak ez du ahozkoa hurrupatu edo ezabatu, biek beren bidea egiten dute. Oraingo euskal gizarte modernoan ere, komunikabideen eta informazioaren eta komunikazioaren teknologien bitartez bereziki, oralitateak eragin handia izaten du hizkuntzaren garapenean eta bilakaeran. Bide horretan Euskaltzaindiak oralitatearen polo handi baten beharra ikusten du Ipar Euskal Herrian, aplikazio-alor desberdinekikoa, hemen zehazten ez ditugunak: oralitatea eta historia, soziologia, antropologia, etnologia, literatura, kantua eta bertsolaritza, linguistika, komunikabideak, IKT, pedagogia... (horri buruz ere X. Videgainen artikulua ikus).

**Terminologia** arloan ere bada lan egiteko Ipar Euskal Herriarendako. Beharrak handiak dira eta Euskaltzaindiak lan horretan parte-hartu beharko luke Ikas pedagogia zerbitzuarekin eta Euskararen Erakunde Publikoarekin (EEP) batera. Mementoko terminologia eta hizkuntza egokitze lan hori EEPk egiten du, edo euskara teknikarien sareak tokiko beharren arabera. Euskaltzaindiak, Euskal Herri osoa kontuan hartzen baitu euskara lantzen duenean eta alor honetan aspaldiko esperentzia baitu, partaide saihetsezina izan beharko luke Hego Euskal Herrian den bezala. Neologismoan, erran nahi baita hitz berriak eta hitz zaharren adiera berriak sortzea, beharrak handiak dira Ipar Euskal Herrian. Beharrezkoa da euskara eremu berrietan sartzen baita, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, gizarte-sareetan, administrazioetan, irakaskuntzan, komunikabideetan...

**Toponimia** Ipar Euskal Herriko leku izenen eremuan lan egin du Euskaltzaindiak, Euskararen Erakunde Publikoarekin batera. Bere eginkizuna da toponimoak arautzea eta Euskararen Erakunde Publikoak euskal toponimoez dituen baieztapen eskaerez arduratzen da. Bi kasu badira: toponimoa Euskaltzaindiak arautua da jadanik eta IGNeko datutegiko leku izenen artean dago<sup>14</sup>, edo arautua ez da oraino. Orduan Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak toponimo horren grafia arautzen du.

Euskaltzaindiak IGN-ekin lan egiten du ere eta egiten dituen zerrendak eta proposamenak aintzat hartzen ditu IGNk, Ipar Euskal Herriko euskal toponimoak erabakitzeko orduan. IGN-k informazio geografikoa lantzen du Frantzia osoan eta mota askotariko mapak argitaratzen ditu, besteak beste. Leku-izenak biltzen dituen Toponimia batzordea badu, izen bakoitzak zein forma izan behar duen erabakitzen duena. Orotara, Euskaltzaindiak Ipar Euskal Herriko 12.000 toponimo aztertu ditu (2003-2005), 1:25000 eskalako mapetan agertzen direnak, euskal jatorria eta euskararen arauak toponimo horietan kontuan hartuz<sup>15</sup>. Ipar Euskal Herriko toponimo bakoitzari eman behar zaion forma erabaki aitzin, IGN-k kontsultatzen ditu.

---

<sup>14</sup> Institut national de l'information géographique et forestière (IGN, Oihan eta Geografia Informazioaren Erakunde Nazionala).

<sup>15</sup> XX. mendeko Euskararen Corpus Estatistikoan sartuak dira.

Toponimiaren arloan aipa ditzagun ere Euskaltzaindiak duela guti argitaratu dituen bi izendegi. 2011n *Euskal Herriko Udalen Izendegia* argitaratu du eta 2014an *Euskal Herriko Ibaiak* izendegia. *Euskal Herriko Udalen Izendegia* bilduman, Ipar Euskal Herriko udal izenei arau izaera ematen da (euskal izena, izen ofiziala erdaraz, herritar izena eta kokatua dagoen lurraldearena edo eskualdearena), eskualde bakoitzaren arauak bilduz. Zuberokoak 92. (1998) eta 99. (1998) arauetan erabakiak izan ziren, Lapurdikoak 108. (2000) arauan eta Nafarroa Beherekoak 122. (2001-2002), 128. (2003) eta 133. (2003) arauetan. *Euskal Herriko Ibaiak* izendegian, Euskal Herriko 414 ibai nagusiren izenak bilduak dira. Horien artean, iparraldekoak deitu den “Lapurdiko kostaldean itsasoratzen diren ibaiak” zerrendan bilduak dira eta 91 dira (2014: 39-42).

Toponimian Iparraldeko beharrei erantzuteko, Euskaltzaindiak lanpostu berezi bat sortu du Baionako ordezkarietan 2017an. Euskararen Erakunde Publikoarekiko partaidetzan, formakuntzak beharren arabera antolatzen ditu, euskara teknikari-garatzailentzat eta euskarazko toponimia grafian lan egiten duten bestelako agenteentzat.

Azkenean **euskararen kalitateaz** axolatzen da Euskaltzaindia. Euskararen kalitatea sustatzeko eta euskara batuaren eta Iparraldeko euskalkien arteko lotura hertsia agertarazteko, beste erakundeekin sail honen indartzeko, argibideak proposatu nahi lituzke, diagnostiko zehatzean oinarrituak, eta beharren arabera formakuntzak eskainiz Ipar Euskal Herrian. Ikas zentroak argitaratzen dituen euskarazko liburuen kalitatea bermatzeko nekezia badu, bereziki bigarren mailako dokumentuetan, ikasgai ezberdinetan euskaldun adituak urriak baitira. Egiatzapen hori ez da oraingoa. Aterabidea goi mailako lan-talde bat sortzea litzateke. Hautatutako jendea euskara ongi dakiena izanen litzateke eta Iparraldeko ñabardurak ezagutuko lituzkeena. Hautatutako jendeen artean gai tekniko bakoitza ezagutzen duena izanen da: matematika, biología, fisika, kimika, geografia, kirola, etabar. Proposatuko diren formakuntzak EGA (C1) baino goragoak izan beharko dira, C2koa Europako Hizkuntzetarako Erreferentzia Marko Bateratuaren sailkapenenean.

Tresnak eskaintzen ditu Euskaltzaindiak eta eskainiko ditu<sup>16</sup>, baina azkenean hiztunek, euskararen erabiltzaileek erabakitzen dute. Hori buruz uste dut, Koldo Zuazo dialektologoak erraten duen bezala, emeki-emeki Lapurdin eta Nafarroa Beherean euskalkiak bat egiten ari direla eta, era batez, Iparraldeko euskara batu bat sortzen ari dela, zuberotarrek ere erabilten dutena zuberotar ez direnekin mintzatzen ari direnean.<sup>17</sup> Orain berean egiten dudana bezala, artikulua hau idatziz. Pierre Lafitte-k „navarro-labourdin“ (nafar-lapurtera) deitzen zuenaren oraingo idatzizko eta ahozko ondorioa, Hegoaldeko euskara batuaren eraginarengatik, besteak beste. Halere, euskara batu berri horrez gain euskalkiak bizi dira adineko euskal jendearen ahoan bereziki.

---

<sup>16</sup> Artikulu honetan aipatuak diren Euskaltzaindiaren argitalpenak denak, paperez gain, Akademiaren webgunean kontsultagarriak dira ([www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus)).

<sup>17</sup> « *Batasun bideak hartu dute euskalkiek eurek ere. Hori dio Koldo Zuazo hizkuntzalariak: « Baturantz ari dira eboluzionatzen. Berdintzen ari da Euskal Herri osoko euskara ».* *Batasun prozesu hori Lapurdin eta Nafarroa Beherean argi azaltzen ari dela adierazi du: batu bat sortzen ari dela bi herrialde horietan »*, Bigarren batasun bidea: euskalkiak, *Berria*, 2016ko urriaren 23a.

#### 4. Bukatzeko

Bestetik eta bukatzeko, Euskaltzaindiak euskararen kalitateari eta araei buruzko aholku emaile ofiziala izatearen aitorpena galdatzen die Ipar Euskal Herriko herri-erakundeei, Euskal Elkargo berri horri bereziki. Erran bezala, batasunerako bidean ematen dituen arauak, gomendioak eta irizpenak euskararen lurralde guztietarako dira.

Baina Euskaltzaindiak badaki euskara indarberritzeko bidean ezin duela bakarrik, ez eta bakarka aritu. Ezinbestekoa da Euskaltzaindiaren eta euskara-erabiltzaileen arteko informazioa, iritziak eta proposamenak trukatzeko eta egituratzeko, hizkuntzaren kalitatearen eta araugintzaren bidean, euskal gizartearen, euskara hizkuntza komunitatearen beharrei erantzuteko.

Ezinbestekoa da ere hiztunen beharrak arretaz aztertzea eta erantzuten saiatzea, bai eta euskararen eremuan lanean ari direnekin lankidetzat trinkoaz aritzea, Jagon jardunaldi honetan Euskal Konfederazioarekin egin den bezala.

#### Erreferentziak

- Cooper, Robert L., 1989, *Language Planning and Social Change*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Etxebarne, Jüje, 2010, *Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz*, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eu](http://www.euskaltzaindia.eu)
- Euskaltzaindia, 2011, *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Izenak Bilduma 1, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eu](http://www.euskaltzaindia.eu)
- Euskaltzaindia, 2014, *Euskal Herriko Ibaiak*, Izenak Bilduma 4, hirueledun, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eu](http://www.euskaltzaindia.eu)
- Euskaltzaindia, 2015, *Euskal Literaturaren Antologia 1: Erdi Arotik Errenazimentura*, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eu](http://www.euskaltzaindia.eu)
- Euskaltzaindia, 2016, *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*, VII. tomoa, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskaltzaindia, 2016, *Euskaltzaindiaren Hiztegia*, 2 tomo, Bilbo: Euskaltzaindia - [www.euskaltzaindia.eu](http://www.euskaltzaindia.eu)
- Euskaltzaindia, 2017, *Arau guztiak*, [www.euskaltzaindia.eu](http://www.euskaltzaindia.eu)
- Euskaltzaindia, 2017 (5. argitaraldia), *Orotariko Euskal Hiztegia*, argitaraldi numerikoa, [www.euskaltzaindia.eu](http://www.euskaltzaindia.eu)
- Euskaltzaindia, 2017, *Oinarrizko hiztegi juridiko-parlamentarioa*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- Euskararen Erakunde Publikoa, 2013, *Nola Erran* frantses-euskara hiztegi elektronikoa, [www.nolaerran.org](http://www.nolaerran.org).
- Fishman, Joshua, 2006, *DO NOT Leave Your Language Alone: The Hidden Status Agendas Within Corpus Planning in Language Policy*, Mahwah, New Jersey: Lawrence Erlbaum Associates.

- Kloss, Heinz, 1969, *Research possibilities on group bilingualism: a report*. Laval (Quebec): International Center for research on Bilingualism.
- Lafitte, Pierre, 1995 (1944), *Grammaire basque Navarro-labourdin littéraire*, Edition revue et corrigée, Donostia: Elkar.
- Lekuona, Manuel, 1968, Euskeraren batasuna, Arantzazu-ko biltzarrak, *Euskera*, XIII, Bilbo, 139-141 - [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus).
- Mitxelena, Koldo, 1968, Ortografia, Arantzazu-ko biltzarrak, *Euskera*, XIII, Bilbo, 203-219 - [www.euskaltzaindia.eus](http://www.euskaltzaindia.eus).
- Oyharçabal, Bernard, 2002 L'unification orthographique et morphologique du basque standard, in *Codification des langues de France*, Dominique Caubet, Salem Chaker, Jean Sibille (ed.). Paris: L'Harmattan, 123-140.
- Sánchez Carrión "Txepetx", Jose Maria, 1987, *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*, San Sebastián.
- UZEI, Soziolinguistika Klusterra, HPS, 2009, *Soziolinguistika Hiztegia*, Lexikoa SL hiztegia 20090318-UZEI-SLK-HPS.doc, argitaratu gabe.
- Videgain, Xarles, 2018, Euskaltzaindiak Euskal Herriko Garapen Kontseiluari, *Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa*, Jagon bilduma 17, Bilbo: Euskaltzaindia, 67-79.
- Zuazo, Koldo, 2005, *Euskara batua Ezina ekinez egina*, Donostia: Elkarlanean.